

Belfast

IPAR IRLANDA

Familia / Egoitza-apartamentua

+16 URTE | URTE OSOAN

Belfast Ipar Irlandako hiriburua da eta uhartearen ekialdeko kostaldean dago. Bere historia liluragarria, bertako biztanleen berotasuna eta ondare artistikoa kontuan harturik, bisitatzeko merezi duen lekua da Belfast. Barnera zaitetz auzo katolikoaren eta protestantearen muinean, deskubri ezazu Titanic itsas auzoa eta gera zaitetz aho zabalik Belfasteko hiri-artearen kalitatearekin.



IKASTAROAK

Eskola unibertsitate-eremuan dago, hirigunetik 10 minutura oinez. Eraikin klasiko guztiz eraberritua da. Bere 4 solairuetan 12 ikasgela zabal, ordenagailuz hornitutako ikasketa-aretoa, tea/kafea egiteko makinez hornitutako sukaldea, jangela eta lorategi txiki bat hartzen ditu. Badu wifi-konexioa.

Gutxieneko adina: 16 urte.

Mailak: oinarrizkotik aurreraturaino (A2-C2).

Ikasgelako gehieneko ikasle kopurua: 12

1 ikasgai: 55 minutu.

Material didaktikoa barne da.

DATAK ETA IRAUPENA

Hasiera: astelehen guztiak.

Gutxieneko iraupena: astebete (1).

General English

Astean 20 ikasgai 09:00etatik 13:00ak arte, astelehenetik ostiralera.

Intensive English

Astean 25 ikasgai 09:00etatik 13:00ak arte, astelehenetik ostiralera + astean bitan 14:00etatik 16:30 arte.

Intensive Plus 25

Astean 25 ikasgai 09:00etatik 13:00ak arte, astelehenetik ostiralera + 5 eskola individual (1:1) astean bitan 14:00etatik 16:30 arte.

Beste ikastaro batzuk

Cambridge azterketak prestatzea (4, 8 edo 12 aste).

Jaiegunak: martxoaren 18a eta 29a, apirilaren 1a, maiatzaren 6a eta 27a, uztailaren 12a eta abuztuaren 26a. Itxita 2024ko abenduaren 20tik 2025eko urtarrilaren 6a arte.

PREZIOA (€)

	1 ASTE	2 ASTE	3 ASTE	4 ASTE
General English	436 €	714 €	991 €	1.268 €
Intensive English	495 €	832 €	1.168 €	1.504 €
Intensive Plus 25	696 €	1.233 €	1.770 €	2.307 €
* Familia	330 €	584 €	838 €	1.092 €
* A apartamentua	472 €	820 €	1.168 €	1.516 €
* B apartamentua	401 €	679 €	956 €	1.233 €



OSTATUA

- Familia: logela indibiduala, mantenu-erdia. Gehienez ere 30 minutura daude, oinez edo garraio publikoan. 16 urtetik aurrera.
- Egoitza-apartamentuak: berriki irekiak, eskolatik 25 minutura oinez, Belfast erdigunean. Instalazioak eta zerbitzuak: terraza zabaltzan, gimnasioa, multimedia-gela, bizikleta-aparkalekua eta irlandar natiboein egindako jardueren programa.

18 urtetik gorakoentzat.

- A: erabilera indibidualerako apartamentua. Logela, sukaldea eta bainugela pribatua.
- B: sexu bereko eta beste nazionalitate bateko ikasle batekin partekatutako apartamentua (erabilgarritasunaren arabera). Logela indibiduala bainugela pribatuarekin. Gehienez ere beste 6 ikaslerekin partekatutako sukaldea eta espazio komuna.

* Ostatuetara IRISTEKO EGUNA: igandea.

* Ostatuetatik IRTETEKO EGUNA: larunbata.

* Ostatuen udako gehigarria. Ekainaren 1etik abuztuaren 31ra. 24 €/aste.

Belfasteko aireportuko joan-etorriak

Ibilbideko prezioa: 89 €.

Iritsierak eta irteerak 09:00etatik 20:00etara

